Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Miren Iparragirre Alkorta

Donostia, Gipuzkoa (1934)



Aurkibidea

Biografia



Zubietako Kale baserrian jaio zen, plazatik gertu, Donostiari dagokion zatian. Sei senide ziren, eta baserrian bazen denentzat nahiko lan. Zubietako eskolan ibili zen umetan, eta zazpi bat urterekin Usurbilera joaten hasi zen, mojetara; gero, Lasartera, 14 urtera arte. Sukaldean ibiltzen ere ikasi zuen Donostiako jatetxe batean. Esnea partitzen ibiltzen zen Donostian, Amara auzoan; autobusez joaten zen hara. Josten ikasten ere ibili zen. Usurbil aldeko Zubietako baserri batera ezkondu zen, eta lau seme-alaba ditu. Elkarrizketa Joxepa Iparragirre lagunarekin batera egin diogu Mireni (argazkian, ezkerrekoa). Joxeparen senarrak ere hitz egin du pixka bat bukaeran.

Zintak

DON-045

- **Proiektua**: Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2009-10-27
- **Iraupena**: 114 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Idoia
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Kale baserrikoa

- **Erref**: DON-045/002
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:25. **Bukatu**: 00:01:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Kale baserrian jaio zen, plazaren ondoan. Ingurua asko aldatu da; lehen dena baserriak ziren. Etxe gutxi zegoen. Errebote plaza beti ezagutu du. Familiako asko ibili dira errebotean, lehen eta orain.

2. Miserikordiko mojak

- **Erref**: DON-045/006
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:10:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Baserriko lanetan, umetatik. Eskolan Zubietan ibili zen hasieran, eta gero Usurbilen: Miserikordiko mojetara, oinez. 08:30ean joaten ziren, eta lehenengo meza zuten. Han bertan bazkaltzen zuten. Dotrina. Mojak ez ziren oso zorrotzak. Bazkaria etxetik eramaten zuten, eta eskailera-azpi batean jan. Mojak bidali egin zituzten, eta Lasarten ibili zen eskolan 14 urte arte. Mojen janzkera. Batzuk euskaldunak ziren.

3. Eskola, erdaraz

- **Erref**: DON-045/007
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:10:15. **Bukatu**: 00:12:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:
Moja batzuk euskaldunak ziren, baina eskola beti erdaraz zen, baita Zubietan ere. Miren Alamandegin hasi zen eskolan, eta Azpeitiko maistra zuten. Cara al Sol kantatu behar zuten... Joxepak dio maistraren gizona zela frankista.

4. Tabernatik Irubidera

- **Erref**: DON-045/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:14:52. **Bukatu**: 00:16:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:
Umetatik dira lagunak. 13 urterekin Zarauztik bueltan, hiru anaia eta Joxepa zeuden tabernan. Igandetan txandaka irteten ziren, Irubidera eta. Lagunek laguntzen zioten. Lehen, laguntasun handiagoa zegoen.

5. Tabernako giroa

- **Erref**: DON-045/011
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:16:47. **Bukatu**: 00:18:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura » Musika
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Taberna 18 urte arte eduki zuten. Egunero zegoen zabalik, lehen oporrik ez zegoen. Beti irekita. Tabernako giroa: "frantsesak" beti kantari, eta bertakoak ere bai. Euskal kantak. Etxeko lanak ere kantari egiten zituzten. Irratirik ez zeukaten.

6. Arropa garbitzen

- **Erref**: DON-045/012
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:18:53. **Bukatu**: 00:21:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

Laburpena:
Etxeko lanak: oheak egin, argizaria ematen zen urtean bitan. Arropak eskuz garbitzen ziren: beratzen utzi, eta hurrengo egunean lixibatan jarri. Errekara joaten ziren arropa astintzera. Eta udan, urik ez zegoen eta erriora. Iturraldetik ere ekartzen zuten ura. Sutarako hautsik ez dute ezagutu. Lagarto xaboia erabiltzen zuten. Ihintzak ere zuri-zuri uzten zuen arropa; orbanak kentzeko ona da. Lehen gaur adina lapur ez zegoen; orain belardirik ere ez dago.

7. Kongregaziora Usurbilera

- **Erref**: DON-045/013
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:21:41. **Bukatu**: 00:23:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:
Usurbilera joaten ziren kongregaziora, hilean behin. Goizeko seietarako mezara. Mutilekin dantza egiteagatik kongregaziotik bota egiten zituzten. Zinta urdina, medailarekin. Luistarrak ziren mutilak, Mariaren alabak neskak.

8. Jaunartzerako, dotrina ikasi behar

- **Erref**: DON-045/014
- **Iraupena**: 0:03:21. **Hasi**: 00:23:19. **Bukatu**: 00:26:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:
Joxepak Donostian egin zuen Jaunartzea, dotrina ikasi beharrik gabe. Bestela, dotrina ondo ikasi beharra zegoen, Jaunartzea egin ahal izateko; Miren-eta ilaran jartzen zituzten. Kredoa, mandamenduak... Don Julian Azpiroz zen Usurbilgo erretorea, goierritarra. Zubietakoa, Don Francisco oiartzuarra. Lagunak ziren.

9. Erosketak Donostian eta Lasarten

- **Erref**: DON-045/015
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:26:40. **Bukatu**: 00:28:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:
Erosketak egitera Donostiara joaten ziren, eta esne partitzera ere bai Miren. Enkargutara Lasarte-Oriara eta elizara Usurbilera. Enkarguak: haragia, ogia... Alamandegin bazegoen denda, estankoa ere bai, baina frutarik ez; taberna izan da beti. Santio egunean Donostiako eta Usurbilgo agintariek Alamandegin egiten zuen bazkaria.

10. Zubieta, bitan banatuta

- **Erref**: DON-045/016
- **Iraupena**: 0:03:53. **Hasi**: 00:28:22. **Bukatu**: 00:32:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Zubieta, bitan banatuta. Joxepa Donostiako partean bizi da; Miren, Usurbilgoan. Joxepak nahiago luke Usurbilgoa izatea, errazagoa delako paper kontuak egitea. Bestela denak zubietarrak dira, ez dago ika-mikarik. Muga garbirik ere ez dago. Eliza bitan zatituta: ez ziren denak elkarrekin esertzen. Txakurtxulo Usurbil da eta Alamandegi Donostia. Garai batean herria ei zen Zubieta.

11. Amaran esnea partitzen

- **Erref**: DON-045/017
- **Iraupena**: 0:04:53. **Hasi**: 00:32:15. **Bukatu**: 00:37:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Bizimodua Kale baserrian: Donostiara joaten ziren esnea partitzera, lehenengo ama eta gero Miren. 06:30eko autobusean joaten zen, eta jaiki ezinik ibiltzen zen. Marmitak zesteran sartuta. Berdura ere bai. Amarako dendetara eramaten zituen berdurak, eta esnea etxez etxe partitzen zuen. Txerrijana biltzen zuen. San Martindik Amarara karreteroak eramaten zizkien gauzak. Esnea 1,50... 3 pezeta ere bai. 10:00etan buelta autobusean; Urbieta kalean hartzen zuten. Zesterak autobus gainean; kobradoreak jartzen zituen han. Erori ere egiten ziren batzuetan. 10 litroko lau-bost marmita eramaten zituen.

12. Esnea, oilaskoak eta arrautzak

- **Erref**: DON-045/018
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:37:08. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Euskara » Euskararen egoera
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Zubietatik jende asko joaten zen esnea saltzera Donostiara. Astoarekin hurreratzen ziren autobuseraino batzuk. "Rekarderak" egoten ziren plazan, lehen. Pepita "pollera" oilasko bila joaten zen autobusera; San Martin plazan saltzen zituen gero. Oilaskoak, bizirik. Esnea hartzen zuenak askotan arrautzak ere bai. Bezero bati hiru litroko marmita eramaten zion, behi batena. Hartzaileak erdaldunak ziren denak.

13. "Demetrio Txerri"

- **Erref**: DON-045/019

- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:40:17. **Bukatu**: 00:42:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:
Kale baserrian txerria hiltzen zutenean, Miren gelan ezkutatzen zen. "Demetrio Txerri"-k egiten zituen odolkiak. Tripak errekan garbitzen ziren. Usurbilen bizi zen Demetrio Torregarai. Baserriz baserri ibiltzen zen.

14. Traperoak eta eskaleak

- **Erref**: DON-045/020
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:42:13. **Bukatu**: 00:45:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:
Eltzeei petatxoak jartzen ere ibiltzen zen bat, etxez etxe. Trapu zaharrak ere biltzen zituzten. Eskean ere asko zebiltzan, "hungrianoak". Eskale zaharrak ere bai, "Sakero" eta. Ijituak ikusiz gero, argi! Ateak zabalik egoten ziren, hala ere.

15. Sukaldean eta josten ikastera

- **Erref**: DON-045/022
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:45:35. **Bukatu**: 00:48:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Eguerdian etorri esne partitzetik, eta arratsaldean josten ikastera joaten zen Miren Usurbilera, Bizikletan. Igandetan sukaldean ikastera geratzen zen Donostian, Bar Españan. Kroketak bildu, txipiroiak... denetik. Langile bat bezala. Bertan bazkaltzen zuen. Handik etorrita, Irubidera, Txikierditik barrena. Iluntzeko ezkilekin batera etxera.

16. Telefono bakarra herrian

- **Erref**: DON-045/024
- **Iraupena**: 0:03:28. **Hasi**: 00:52:02. **Bukatu**: 00:55:30

- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:
Ojaldrea nola egiten zuen. Hozkailurik ez zegoen etxean. Izeba sukaldariari aholkua eskatzen zion, taberna zutenean, Errekalderaino joanda. Telefono bakarra zegoen Zubietan, Mirenen izebarena; egurrarekin egiten zutelako lana. Apaizaren etxeko lokutorioaren kontuak. Hika hitz egiten dute elkarrekin.

17. Umetako jolasak

- **Erref**: DON-045/025
- **Iraupena**: 0:03:03. **Hasi**: 00:55:30. **Bukatu**: 00:58:33
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna

Laburpena:
Lagun taldea: Arantxa, Joanita eta laurak. Umetako jolasak: txibak, "harritxabalaleta", arkume hezurrak, sokasaltoa... "Al cocherito Lere". Mendira gutxi joaten ziren. Urkiolara, ezkongaitan.

18. Sagardoa egiten

- **Erref**: DON-045/026
- **Iraupena**: 0:01:54. **Hasi**: 00:58:33. **Bukatu**: 01:00:27
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Kale baserrian sagardoa egiten zuten, kanporako ere bai. Sagarrarekin etortzen ziren. Dolarea, prentsa... Buelta nola ematen zioten dolareari, aita mendian zebilela. "Kiskilla"-rekin hartzen zuten sagarra, eta sarearekin. Eskusarea. Gaurko aldean lan gogorrak lehen.

19. Sagar motak eta kupelak

- **Erref**: DON-045/027
- **Iraupena**: 0:02:29. **Hasi**: 01:00:27. **Bukatu**: 01:02:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Beste garraio batzuk
- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza
- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:
Sagardoa egiteko erabiltzen ziren sagarrak: txalakak, patzoloak, sagar beltzak... Hiru bat kupel eta lau bat barrika betetzen zituzten. Lasartetik ere etortzen ziren baserritarrak, sagardoa egitera; gurdiekin eramaten zuten sagardoa. Sagarrak zakutan, eta sagardoa barrikan. Joxepak-eta botilak ekartzen zituzten.

20. Baserri gutxi orain

- **Erref**: DON-045/028
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 01:02:56. **Bukatu**: 01:05:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:
Baserri izateari utzi ziotenak: Kale, Etxenagusi, Haundi, Aliri, Etxeberri... Desagertutako baserriak: Goikoetxe. Zeintzuk jarraitzen duten orain baserri moduan. Artutxa baserria ere desagertu zen. Artutxa eta Prostu jabe berarenak ziren.

21. Gerra garaiko kontuak

- **Erref**: DON-045/030
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 01:07:04. **Bukatu**: 01:09:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:
Artutxa baserria zegoen tokian, armadak aerodromoa jarri zuen. Gerrako oroitzapenak: hegazkinak nola pasatzen ziren, ukuiluan nola ezkutatzen ziren... Joxeparen izeba etxera etorri zen, senarra gerran zuelako, eta bertan geratu zen.

22. Gose garaia

- **Erref**: DON-045/031
- **Iraupena**: 0:04:50. **Hasi**: 01:09:20. **Bukatu**: 01:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Joxepak-eta gose ikaragarria pasatu zuten, Mirenek-eta ez hainbestekoa. Pikuekin ogia egiten zuten, turroi antzekoa. Sardina zaharrak, erdibana, meriendatzeko. Txokolatea ere, ontzaren erdia. Esnegainak jaso, eta ogian jarri. Gabon egunean, arrautza patata frijituekin. Ez zegoen gaurko aukerarik. Bederatzi-hamar ziren mahaian, Joxeparen etxean, eta ogi xerrak pixkanaka jaten zituzten, pastela bezala. Bakoitzak bere platera zuen.

Transkripzioa
- Miren: Hamaika ixtori!
- Gose garaiya-eta izan zan...
- Joxepa: Uuuu. Gosia? Guk... Hok ez dakit o akaso oaindikan´e basarrin o zea... Baiño guk behintzat gosia ikararriya pasa genun.
- M: Gosia, gosia...
- J: Nik bai.
- M: Ez takit nundik sortzen zuen... Ogiya etxian itten genun, gue izebak´e bai... Eta ekartzen zuen kanpotik, nunbaittetik, ta geo artuakin itten gendun iriña, taluak eta...
- J: Zuen, zuen izebak “pan de higo”-ta... goatzen zea?
- M: Bai, Valdealgorfatik ekartzen giñun.
- J: Mojak emandako hoitako izeba Anttoniri... Ematen ziyon honen izebak, klaro, hemen hainbeste ume ikusten-ta /da/ zea ta... Harek´e beriak bi ta geo gaiñontzekuak eta...
- M: Gue izebak-eta ziñenan monja bat, e...
- J: Bai, harek emandakoa.
- M: “En Valdealgorfa”. Eta han itten zittuen pikuak...
- J: Bai, “pan de higo” esaten giñun...
- M: Ondu pikuak, eta geo zeakin...
- J: Hola, turroia bezela, tablak hola.
- M: Moldiak. Bai, piku ondukin. Eta geo handik ekartzen zituen. Hola zian, turroiyan tabletak bezela.
- J: Bai, bai.
- M: Eta geo, aatsaldian meriendatzeko xerratu...
- J: Xerrak in, bai...
- M: ...eta ogiya!
- J: Jesus, guk sardin zarrak, negun. Pentsa, e, sardin zarrak, ze gosia pasako gendun o ez gendun. Bueno, erdibana! Sardin zarrak erdibana meindatzeko. “Gaur isats aldia jaten dunak /jateunak/”...
- M: ...”biyar buruba!”
- J: Bai. Kanbiyatu. Danak nahi izaten gendun buru aldia gehiyo. Isats aldia iñork ez gendun nahi izaten.
- M: Eeez?
- J: Ez.
- M: Aizan, ba...
- J: Ba hola.
- M: Ez takit pa ze esan...
- J: Txandan, gaur e... Eta txokolatia ere.... Elgorriaga.
- M: A, bai.
- J: Batian umia eta bestian letrak.
- M: A, bai.
- J: Ontzak.
- M: Ontzak, bai.
- J: Ba ontz haitakuen erdiya.
- Ontza erdi, e?

- J: Ontzaren erdiya, ta hantxe beiya atea biharrian haundina zein izango zan... txokolate hua hartzeko.
-M: Eta gaur e... gue... /...
- J: Esnegaiña!
- M: Gue mutil koskorrai esan iezaiyon /esaiyon/! “Amona, biha det /biet/ txoko. Baiño bi, e! Bi”. Harek eskatzen ittu /eskatzeittu/, bi eskutan bana.
- J: Bai. Esnegaiñak jaso...
- M: Bai, hoi bai, eta geo ogiyan gaiñian jarri...
- J: Geo azukriakin zeatu... ta ogiyan gaiñian...
- M: “Manjar”, e, hua izaten zan, e.
- J: ...igurtzi, ta klaro, nahi dan guztiya ez!
- M: Gaur aiña... gaur baiño nata earragua esniak´e.
- J: Bai.
- M: Ooo, lori-loriya!
- J: Gabon, Gabon euna. Bueno, gabon euna bat da. Gue izenak, klao mixeriya haik pasa zuen, e! Beak esaten zun: “Ta umieri zeoze emango, ta ze emanik ez”. Tristia, e? Guk sikiera hoi ez deu... Baiño bueno. Gabon euna, ta bueno, afaiya ta bueno, ze ba: “Ta bueno, gaur”... gizonak kenduta... Klaro, harek´e bi... bueno, gue aitta ta... haren gizona ta... Geo, bea haundiyaua... zea, enfin. Baiño gutzako zea, patata prijitukin arraultza, ta: “Izeba, baiño arraultza osoana, e! Osoana!”. “Bai, bai, arrautza osoana”. Ez zitzaiun iruitzen Zubieta guztin iñork´e guk baiño afai hobia in behar zunik. Patata prijitukin arraultza bana.
- Arrautza bana.
- J: “Osoana, e! Izeba, osoana, e!”. “Bai!”. Pentsa, zenbat arrautza jango gendun!
- M: Bai, ordun...
- J: Ez zait /etzait/ ahaztutzen hoi.
- Orduan gero, ikasi zenunian, kozinan ikasi zenunian-ta...
- M: Eta kozinan ikasi bakarrik ez, jenerua...
- J: Bai, bai, bai.
- M: Gaur don aukera, ezta? Bat nahi ez bazu bestia dakazu, ba... bai.
- J: Eta... bazkaltzeko ta hola potajea... Acerosen ematen zixkiun, ordun, aginaldo earrak. Babarrunak-ta ez takit ze klasek izango zian ta /da/ baiño... asko ematen zuen, ta /da/ biharra. Baiña gizon... aitta ta danok jarri mahaiyan, beatzi-hamar o sartzen giñan mahaiyian. Ogiya xerran holaxe guri, eta gizonei-ta gehixeo. Ogiya eukitzen gendun eskun gordeta. Jan kutxarillakin...
- M: Guk hoi ez deu /ezteu/ ezautu.
- J: Guk pai, guk pai! Guuuk... bueno! Kutxarillakin jan ogiya. Mingaiñakin garbittu platera, geo tomatia, zeon tomatia... Hua´re kutxarillakin-ta jan, ta geo ogiya pastela bezela: pixkana-pixkana jaten. Pena bukatzeko, ogiya!
- Eta denok batetik, babarrunak edo...?
- J: Eez.
- Bakoitzak bere platera...
-J: Bakoitzak... hori bai!
-M: Bai. Ez, guk ez deu /ezteu/ ezautu...
- J: Hoi beti... Ba “en cambio” Zuaztin bai, ta gero... Joxe Luixek-eta ez, baiña aldamenekuan bai, fuente borobil batea, eta danak handik.
- M: Handik.
- J: Guk ez, hoi ez deu /ezteu/... ta basuak´e bakoitzak gerena.
- M: Beria, bai. Gurian´e... A! Guk ez deu jarri´re iten ta /da, mahaiyian... Nik ez nun jartzen basoik mahaiyian.
- J: Nik, nik ezta´re.
- M: Nola ez deten ezer eaten.
- J: Gu biyok igual gea.

- M: Ura bakarrik eaten deu...
- J: Bai ta ura mahaiyian... ezta urik´e!
- M: Ezta urik´e. Bihar bazendun, eta noizian behin hartu, eta jun... kanillatik hartu ta...
- J: Eta hori iguala da ta ni´re bai. Sekula ez deu... mahaiya... jartzen det / jartzet/ basua, hola baten bat kanpokoa o, itxurako e... bakizu, ba denak berdin jarri, baiña etxian bakarrik sekulan ez det netzako basoik jartzen.

23. Ur bila joan behar

- **Erref**: DON-045/032
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 01:14:10. **Bukatu**: 01:15:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Kanileko urik ez zegoen. Ura iturritik ekartzen zuten. Zerrategiaren ondoan zegoen iturria, eta udan agortu egiten zen. Ilara egiten zuten, ura hartzeko. Oraingo gazteak horrela jarri behar!

Transkripzioa
-Eta kanillako ura bazeon?
-J: Bai, bai... A! E, kanillakua ez. Iturraldetik ekarrita!
-M: Bai, marmitakin ekartzen gendun honea...
-J: Hoixe. Kanillakua geo! Jesus!
-M: Bai. Ez, ez...
-J: Tabernan gendela´re handik ura ekarrita!
-Bai, e ?
-M: Erropa garbitzeko´re handik ura ekarrita garbitzen gendun, e?
-J: Kanilla?
-M: Zeatikan etxeko urak izugarrizko erdoiya zun.
-J: Aaa.
-M: Kolorezkuantzat baliyo zun...
-J: Bai, bai, baiño...
-M: ...baiño udaran hua ere ez. Aittu itten zian ta /da, agortu itten zian ta / da/.
-J: Klao gu makiña bat jun gea Barazarra´e, ur billa´re ta. Alabizarko zulotikan´e bai ta...
-M: Bai.
-J: Ahal zan /altzan/ tokitik.
-M: Ta ordun, e, lana ein…
-Eta urruti zeon iturriya?
-J: Bueno, hemen…
-M: Hor beheran, zerraa nola juten zea? Hemendik behera.
-J: Zerra pasa ta honea bazatoz…
-M: Honea bazatoz, ta aldameneko etxi hortan, hortxe. Itturri ttiki bat.
-J: Bai.
-M: Eta zan itturriya ta agortu igual… jun iten zan,
-J: Ematen zun, baiño…
-M: …eta puxkatian eon ta /da/ hola…

-J: Eon eta beti, beti ura.
-M: Hola katxarro txiki batekin, poto batekin... atea, ta marmita bete.
-J: Bai.
-M: Eta kola inda!
-J: Kola indaaa... Troyatik eta danetik etortzen zian ta!
-M: Ura hartzeko, kola inda!
-J: Eta hoi zeon...
-M: Ordun´e lanak iñ itten giñun.
-J: Bai, hoi da, ta hori seguruasko herriyana izango zan ba iturri [...]... Itturraldekua esaten gendun, baiño...
-M: Ba errita ematen zitxaigunan, ikusita, aittonak!
-J: Bai, bai, potua´re eukitzen ziñan han ta... baten batzuk eaman´e iten ziñanen ta... ez takit. Behintzat oain itxiya dake, oain zean, oain berena.
-M: Bena. Bai, ezta biharrik´e oaiñ, e.
-J: Ez, ez, baiño...
-Oain badao ura.
-M: Oain badao.
-J: Oain bado, oain bado.
-M: Ta baita biharra, gaiñea, e.
-J: Ba gu holaxe zeatutakuak.
-Orduan, bizimodu gogorra.
-J: Baii, uuuu. Gue gaztiak oain hola jarriko balia...
-M: Bai. Desesperatu!
-J: Bai.

24. Errebotea

- **Erref**: DON-045/034
- **Iraupena**: 0:03:06. **Hasi**: 01:16:13. **Bukatu**: 01:19:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Euskara » Lexikoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Errebotea. Terrazan jarrita partidak ikusten zituzten hiru ahizpek. Baiona, Senpere... Iparraldetik etortzen ziren. Arriskutsua da errebotea, pilotak oso gogorrak direlako. Aitak, osabak... denak ibiltzen ziren errebotean. Hiru neska eta hiru mutil ziren Miren-eta. Joxeparen anaia "kontalari" ibiltzen zen. Ez ei da erraza kontatzea. Pikiak. Zubietakoei txalo jotzen egoten ziren.

25. Urte asko nobiotan

- **Erref**: DON-045/035
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 01:19:19. **Bukatu**: 01:21:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
18 urterekin hasi zen nobioarekin Joxepa, eta 25ekin ezkondu zen. Miren 26rekin. Dantza egiten beraien gisara ikasi zuten. Ez zegoen mutilei helduta dantza egiterik. Guarda ibiltzen zen, bastoiarekin joka. Denak Lasartera joan ziren, haserre, santiotan, herriko festei boikot eginda.

Transkripzioa
-Eta, mutillekin-eta ibiltzen ze adiñetan hasi ziñeten?
-Joxepa: Uf, ba ni nobiyotan, oain dakaten gizonakin, hemezortzi urtekin.
-Miren: Hemezortzi urte... nik gehiyo.
-J: Ni hemezortzi urtekin hasi nitzan. Nik nobiyotan zazpi urte in nitun.
-M: Zazpi urte...
-J: Bai, eta oain in dittu abuztun berroita hamar urte ezkondu giñala.
-M: Bai.
-J: Bai, abuztun oain in dittu.
-M: Gu setiembriam. Hurrungo setiembrian ingo ditteu berroeita hamar urte.
-J: Ikusi.
-M: Urtebete gazteo... hau baiño urtebete beranduo ezkondu giñan.
-J: Bai.
-M: Ni hoeita sei urtekin.
-J: Ni hoeita bostekin.
-Garai hartan nobiyotan denbora asko iten zan, ezta?
-J: Esate izut pa! Ni, nik zazpi urte in nitun. Zazpi urte in nittun nik.
-Eta nun ezautzen zian mutillak?
-J: Nik hemen, tabernan hemen. Klaro...
-M: Guk Irubiden ta /da/.
-Irubiden? Ta dantza iten nun ikasi zenuten?
-J: A, geren gixa!
-M: Dantza itten?
-J: Sueltuan ta /da/…
-M: Hementxe ikasiko genun…
-J: Geren gixa!
-M: Bai. Festetan ta /da/!
-J: Klaro!
-M: Santiyotan ta /da/.
-J: Klaro!
-M: Eta zea, sueltokua jotzen bazun baltzian…
-J: Bai. Eske ordun ez zan /etzan/ hemen sueltuan, o… baltzian itten, e!
-M: Baltzian itten.
-Ez?
-J: Galaziya zeon. Ez zeon /etzeon/ itteik.
-M: Ez zeon /etzeon/ itteik. Suelton.
-J: Eta geo, azkenian, in behar gendula ba baltzian eta... Illoba, apaizan illoba zan, gaiñea! Eta apaizak… bueno, guardak galarazten zun, baiña apaizangatik!
-M: Guarda zeon ba Zubietan, guarda bat.
-Guarda zeon?
-J: Bai, guarda, bai…
-M: Be uniforme ta guzti ibiltzen zan, e.
-J: Bai, bai, bai.
-M: Be bastoiyakin, e. Eta bastoiyakin jo´re bai, e!
-J: Bai, hoixe! Buenooo...
-Dantza elkarrekin... ?
-Jo: Bai. Ta geo ze in...

-Baltzian iñ ezkero...
-J: Ze in gendun, zea batzutan, o santiyo zeatan...
-M: Jai batian, festak zian...
-J: Festetan...
-M: Herriko festak, santiyotan.
-J: Bueno, nahiz ta sueltuan jo, baltzian ingo gendula. Ta bueno.
-M: Kontra itteatik.
-J: Kontra itteatik.
-M: Danak alkar hartuta.
-J: Hasi gea ba, […], mutillakin baltzian, ta ze, ta guarda bastoiyakin, daneri joka! Joka, e? Eta geo: “A, bai?”. Santiyo biarrena zan, uste det / ustet/, gaiñea!
-M: Bai, ta danak festak utzi, ta danak Lasartea!
-J: Danak Lasartea!
-M: Kuadrilla osua, danak kantari.
-J: Lasarten, Santa Ana.
-M: Bai, Santa Ana.
-J: Danak harea!
-M: Kuadrilla osua Lasartea, danak hemengo festak utzita, zea, boikot inda martxa!
-Hori santiyotan?
-J: Bai, santiyo biarrena...
-M: Utzi ez ziguelako /etziguelako/ baltzian. Ta Lasarten uzten baizuen. Zubietan ez.
-J: Zubietan ez. Zubietan ez zuen /etzuen/ uzten hola, uuuu…

26. Santioak

- **Erref**: DON-045/036
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 01:21:43. **Bukatu**: 01:24:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:
Santioak. Meza nagusiaren ondoren, bazkaria udaletxean. Txistularien kontzertua. Errebote partida. Etxean bazkari berezia. Eta arratsaldean soinua. Auntxa soinu-jotzailea, Urrestillakoa. Dantza egitea gustatzen zaie orain ere.

Transkripzioa
- Eta santiyoak nola ospatzen zian orduan? Ze... nolakuak zian?
- Joxepa: Ba nolakuak izango zian! Goizian... meza nausiya.
- Miren: ...meza nausiya.
- J: Geo, meza nausiyan ondorenian...
- M: ...ayuntamentuban...
- J: Hoi da, bai…
- M: ...bazkaiya.
- J: Konziertua iten zuen…
- M: Txistularik Donostitik etortzen dia oaindikan´e bai, e.
- J: Oain´e bai. Alamandi aurrian konziertua iten zuen, eta ez takit bertsolairik eo izaten zan... ez naiz goatzen.

- M: Ez takit.
- J: Zeoze hola. Geo behintzat ayuntam... bazkaiya, eta bakizu... etxe, etxe...
- M: Gero rebotia.
- J: A, bai, errebotia! Hoi da, hoi da...
- M: Erreboteko partidua.
- J: Eta geo etxe guztitan, guztitan, bazkaiya izaten zan, e.
- M: Bai.
-J: Eta nobiyuak eta parejak eta baldin bazian, ba bakizu, andregaiyak nobiyuan etxea o, o... nobiyoa...
- M: Lehengusuk eta, kanpoko jendia.
- J: Ba enfin. Behintzat hola! Nik beti taberna zeon hemen, “o sea que”...
- M: Eta geo atsaldian soiñua. Garaiz hasten zan.
- J: Eta geo atsaldeko seiyetan o zazpitan o...
- M: Leno, leno ez?
- J: Baaai, e, jarri, bai. Ni goatzen naiz zea, Areetan, Areetan zea...
- M: A, Joxe Manuelenian?
- J: Baaaai.
- M: Beandu arte aittuta.
- J: Bai, klarooo, zea, “esto”... zein gendun ba?
- M: Auntxa!
- J: Auntxa! Auntxa soiñu jotzalia. Zea... hara etorri...
- Urrestillakua?
- J: Ez takit...
- M: Bai, horkua, Azpeiti aldekua. Bai, Auntxa.
- J: Eta Arantxa Alamandazarrekua eta biyok, klaro hemen taberna zeon, ta /da/ hemen izeba-ta, artian e Dolox hemen zela, ta... Arantxa ta biyok Areeta, zea, han nola zeon bazkaltzen zea, trikitilaiyak...
- M: Bai, bazkaltzea hara eamaten zuen.
- J: Konzejala hangua zan, ta konzejalak eamaten zun.
- M: Bai. Eta geo beak nahi zuen garaiyian etorri goitik behera.
- J: Klaro, geo han ibiltzen giñan ganbaran dantzan!
- M: Bai.
- J: Dantzan han ibili, ta geo pasakallian etorri honea, eta klaro, ni hemen taberna zeon ta /da/, sagardoa saltzen ta /da/ hor ta /da/... Arantxa ta klaro, dantzan! Ni hemen supritzen! Guk geren gixa ikasita dantzan, geren gixa!
- M: Geren gixa, bai, bai, bai.
- J: Baiña bai gustatu, e!
- M: Bai.
- J: Aiii, ze gustoa...
- M: Oaindikan´e...
- J: Oain ez, e, gauza; oain ez gauza.
- M: Aurten ez takit in deun santiyotan... Bai! Pieza bat in deu.
- J: Bat.
- M: Bat, baiño...
- J: Bat, bat, bat.
- Buenoo...
- J: Bai, baiño bueno...
- M: Urtian bat eo itten deu, “in biha diñau /biañau/” ta bale, baiño... hola ibiltzeko ez.
- J: Gustatu, irakagarri! Sueltuan, e, geren erara. Klaro, ez oain, oain... ez do /ezto/ ez dakiyenik’ e /eztakiyenike/. Jakin, primeran, baiño geo ez in! Pena ematen diate /ematieye/.
- M: “Es que” oain soiñua alperrik jotzen du /jotzeu/. Oain jotzen du soiñua bazkarretik beira egoteko...

- J: Holako trikitixa, holako soiñu earra ta... iñor ez. Eta gu itteko gauza ez! Ta gaztiak ez. Ze pena! Nei, ikararriya.
- Pena da, bai.
- J: Nei, ikara... Eta jakin... ez do /ezto/ iñor´e ez takiñik; eta ondo, gaiñea, umetan ikasten due ta.

27. Lehen, dena bekatu

- **Erref**: DON-045/037
- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 01:24:20. **Bukatu**: 01:27:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:
Lehen, dena zen bekatu, mutilari besotik heltzea ere bai. Sexu kontuez ez zen hitz egiten, ez eskolan ez etxean. Haurrak nondik zetozen ez zekiten.

Transkripzioa
-Eta lehen, dena zan pekatu...
-Joxepa: Uoj, pekatu? Bai mutillei heltzia´re.
-Miren: Mutillekin dantza itia´re.
-J: Bai, bai.
-M: Horregatikan kongregaziyotik botatzen zuen.
-J: Ze, zea, pareja hoixe... justu-justu hola besotikan o... hori geoa, e! Ez e... heldu eta “ya está”. Holaxe, akabo. Besteik ez zeon /etzeon/ ezer´e.
-M: Bai. Horreatik bialdu Usurbildik´e... zeatik, kongregaziyotik. Klaro.
-Eta...
-M: Mutillekin dantzan in zendulako.
-Eta esplikatzen zuten zerbait? Sexu kontuak eta hori ez zan...
-Biak: Kebaaa!
-Ez zan hitz eiten, ez?
-J: Ezta ezer´e!
-Ez eskolan, ez etxian... iñun?
-M: Ez, ez.
-J: Ezta ezer´e. Keba.
-Eta umiak nondik zetozela esaten zuten?
-J: Uuuu. Ez takit, nundik esango zan... Guatzen naiz gue Anttonio, anaiya... Berrikua haurdun zekala... Hoi umia, baiño batetik bestea listoguak izan itten...
-M: Zein, Berriko?
-J: Berriko... etxekoandria.
-M: Oaingo gazti hok?
-J: Ez, ez, ez. Lengokua!
-M: Amona? Berriko amona?
-J: Ez. Zea, mmm... Oan, Miel Mai ta nola dia...
-M: Hoin ama.
-J: Hoin amaaa.
-M: Bai ba! Este... Bai, Ix... Asentxion andria.
-J: Andria, hoi den. Juanita jun eta harek ikusi tripa haundiyakin o zala ta... baiño... Jakin bai, baiña ez esaten. Ezta ezer´e. Eta nik ez takit nundikan o nola o zer... Guk ez genekiun, guk.... ez takit nola enteatuko giñen gu!
-M: Ez, ez hunan igual etxetikan atea... asko atea... honea Zubieta-ta ez

hunan etortzen andri hua.
-J: Ez, zeozerta harea junda.
-M: Bai, baiño hua juten hunan esniekin Lasartea.
-J: Bai, bai, bai.
-M: Andri hua.
-J: Bai, baiño gue Anttonio ta jun hitunan Berria zeozerta.
-M: Aaa. Zeozerta.
-J: Eta harea jun, ta han ikusi, baiño hua ixilik. Harek ba, jakin harek zer zan /zertzan/, baiño... Ez, ez, keba.
-Ze esaten zuten: jaio in da, umia jaio da ta...
-M: Klaro.
-J: Eta “ya está”. Ezta ezer´e.
-Beste garai batzuk, ez?
-M: Bai. Jesuuus, jesuus.
-J: Ez, oain zihero diferentia do. Uuu... ni goatzen naiz Juakinitan lehengusuk, mojak dixkin hiru... Juakinitanak.
-M: Anttonik illobak monjak al dittu?
-J: Bai, bi bixki ta ahizpa, bestia Pakita...
-M: A, beira.
-J: Eta etorri hittunan honea, holaxe eun batian etorri hittunan honea, eta... zitxonan haurdun Juakinita! Ana Belen izan zitxonan.
-M: A, bai.
-J: Eta nik ez zekiñat /etzekiñat/ ze nola hola umiai esan in bihar zitzaiyola... monjak. Haik...
-M: Monjak. Monjak esaten al zuen /esatealtzuen/?
-J: Mojak, bai, bai, bai. “Ta nola esango ziyonau ba?”. Klao, geo... A! Hua zitxonan semian zea. Ta Anabel.
-M: Anabel.
-J: Zarragua.
-M: Zarragua.
-J: Ta esan ba, eta nola esango ziyon ba? Eta esan in bihar zitzaiyola! Esan in bihar zitzaiyola nola zakan...
-M: Bai.
-J: Klaro, orduan ez zan jakiten neska o mutilla, jaiyo arte, baiño nola haurra zakan eta... Eta jo, nola esango ziyon ba? Ta monjak, hemen goatzen zait atsalde batian nola aittu zitzaiyon esaten.
-M: Esaten... nexkai?
-J: Amai, Juakinitai. Nexkai esateko.
-M: A, bai, hoi da.
-J: Anabeli esateko.
-M: A, baiño monjak beak ez ziyon /etziyon/ esan...
-J: Eeez. Amai esaten zitxonan.
-M: Amai esaten zitxonan... esateko alabai!
-J: Alabai esateko, bai. Bai, bai, ordun buenooo.

28. Gizonak libreago

- **Erref**: DON-045/038
- **Iraupena**: 0:01:31. **Hasi**: 01:27:32. **Bukatu**: 01:29:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Gizonak askoz libreagoak ziren. Ez zuten etxean ezer egiten, pilotarako beti libre. Etxeko lanak partitzea oso ondo iruditzen zaie.

Transkripzioa
-Eta gizona… mutillen eta nesken arteko diferentzia, bizimoduan ta /da/? Mutillak askoz libriago, libriaguak zian, ezta, nahi zutena iteko, ez?
-Miren/Joxepa: Baaai.
-Joxepa: Nahi zuena. Bai, bai.
-M: Hoixe. Mutillak ez zuen etxian ezerre itten.
-J: Ez, ez ,ez. Hua libre! Dana neskak.
-M: Dana nexkak. Ez, ez, ez. Mutillak, keba…
-J: Dana neskak. Dana neskak, buf.
-M: Haik beti pelotako-ta libre.
-J: Haik libre. Haik libre. Oain bezela, oain ikusten dian bezela gizonakin-ta... jesuus.
-M: Bai, etxian alkarrekin lanak itten ta /da/...
-J: Jesuus. Ta oso ondo billatzen det /billatzet/, e. Gaiñea, oain ikusten da /ikustea/... Leno biyak´e ez zian /etzian/ juten lanea. Jeneralian emakumiak beti etxian izaten giñan.
-M: Bai, hoi da. Oain biyak juten dia.
-J: Hoi da.
-M: Eta lanak´e partittu beharra izaten da /izatea/...
-J: Hoi da, hoi da... Baiño lotsatu, gaiñea, zenbaitt mutill o... Bueno, lotsatu, gaiñea! Behin ni... Oain ez, aspalditik ikusten ittut /ikusteittut/ o ikusi izan ittut matrimoniyuak, gaztiak, [...] umiekin-ta... Gizona umiei pardelak aldatzen ta /da/, e. Andria ez.
-M: Plazan´e halaxe aitzen dia ta… “tan frescos”.
-J: Gizona, e!
-M: Hoixe.
-J: Baiño nik esaten det /esatet/: “Nik in nittekela nola esango ziot pa?”
-M: Gizonai?
-J: Baiño ez. Gizona! Eta andria lasai! Oain hola ikusten dia /ikusteiya/, e!
-Bai, bai, hola izan behar du, ez?
-J: Bai, bai. Oain hola ikusten dia /ikusteiya/.
-M: Gizona aurreatu!
-J: Baiño gue gizonak oain edozein erata launduko izu, baiño gue gizona ez litzake kapaza izango umiai pardelak aldatzeko.
-M: Ez. Bueno, guriak jantzi ta itten du /itteu/ mutil koxkorra… ta baiño… zuk esan zuna: pardelik-eta ez du bihar oian-ta /da/. Ez.
-J: Klaro, klaro…

29. Zinemara Donostiara

- **Erref**: DON-045/039
- **Iraupena**: 0:04:35. **Hasi**: 01:29:03. **Bukatu**: 01:33:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Nobiotan, zinemara gutxi. Joxepak gogoratu du ezkondu eta gero "Los diez mandamientos" filma ikusi zuela. Donostiara joaten ziren. Ezkon-bidaia Madrilera egin zuen Joxepak; trenarekin izan zituzten komeriak, Altsasuraino joan behar.

30. Madrilera ezkon-bidaian

- **Erref**: DON-045/040
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 01:33:38. **Bukatu**: 01:36:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Madrilera joan zen ezkon-bidaian Miren ere, baina autoa alokatuta. Azpeitian egin zuten ezkontza, San Inazion, koinatarekin batera. Joxepak Madrilgo ostatuko kontuak aipatu ditu, nola joan zitzaien gizon zahar bat bila.

31. Ezkondu, zuriz ez

- **Erref**: DON-045/042
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 01:36:29. **Bukatu**: 01:39:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Ez ziren zuriz jantzita ezkondu. Mirenek zetazko soineko beixa eraman zuen, kaskotearekin. Joxepa beltzez, soineko motzarekin; dotoreegia iruditzen zitzaion zuria. Barrenetxeko jostunak egin zion soinekoa Joxepari. Orrazkerarekin ez dira akordatzen. Bata Usurbilera eta bestea Lasartera joaten ziren pelukeriara; permanentea egiten zuten. Plantxak jartzen zizkieten buruan, kea dariola.

32. Oinetakoak

- **Erref**: DON-045/043
- **Iraupena**: 0:00:38. **Hasi**: 01:39:58. **Bukatu**: 01:40:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Oinetakoak: apretak eta zapatak. Mutilek abarkak ere bai, baserriko lanetarako. Lonazko zapatillak bazeuden.

33. Errioa eta zerrategia

- **Erref**: DON-045/044
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 01:40:36. **Bukatu**: 01:42:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:
Errioan arropa garbitzen zebiltzala, arrainak agertzen ziren, papelerako zikinak ere bai. Zerrategiko turbina martxan jartzen zutenean, arropa ihesi joaten zen. Ezpal bila joaten ziren zerrategira, sutarako. "Txirrilla"-n jaisten zituzten enborrak menditik behera. Lehengo bizimodua ez da inori desiatzeko modukoa.

34. Inguruko lantegiak

- **Erref**: DON-045/045
- **Iraupena**: 0:01:47. **Hasi**: 01:42:58. **Bukatu**: 01:44:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Inguruko lantegiak: Michelin, Lasarteko botoi fabrika... Emakumeak ere joaten ziren. Joxeparen senarra lehenengo kobratzaile ibili zen autobusetan; gero, Michelinen. Billeteak nola kobratzen zituen. Autobusak 1,30 balio zuen; marmita bakoitzeko 30 zentimo...

35. Kobratzailea

- **Erref**: DON-045/047
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 01:45:30. **Bukatu**: 01:46:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:
Joxeparen senarrari, Joxe Luisi, kobratzaile zebileneko prezioak galdetu dizkiote. 1,30 autobusak Zubietatik, 50 zentimo zesterako. Marmita gutxitan kobratzen zuten.

36. Estraperloa eta arrazionamendua

- **Erref**: DON-045/048
- **Iraupena**: 0:04:11. **Hasi**: 01:46:12. **Bukatu**: 01:50:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Gerraosteko estraperloa. Oriora joaten ziren olio bila. Joxe Luisek kontatu du olioa nola eramaten zuten autobusean, eta behin hautsi egin zitzaiela. Oiartzunen azukrea ere bai. Arrazionamenduko kartila. Taloa. "Morokilloa". Artoa nola txikitzen zuten. Bi erreal litro esnea.

37. Errotak eta garia

- **Erref**: DON-045/050
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 01:51:03. **Bukatu**: 01:53:02
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Zerrategiari errota esaten zitzaion, errota zegoelako lehen han. Usurbilgo Sindicatotik ekartzen zuten arto-irina. Garia ere ezagutu zuten, plazan jotzen, harriak jarrita. Makinarekin etortzen zen bat, gari-jotzeko makinarekin, eta dena batera egiten zen. Txoriei kontu egiten egon beharra zegoen, soroan; potoak astintzen zituzten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-30

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com